



ABALTZISKETA

PRODUKTU FITOSANITARIOEN (NEKAZARITZAN ETA BARATZETAN ERABILTZEN DIREN PRODUKTUAK) APLIKATZAILEAREN OINARRIZKO TXARTELA ATERATZEKO IKASTAROA

Fraiosorok, Produktu Fitosanitarioen (Nekazaritzan eta baratzetan erabiltzen diren produktuak) Aplikatzailearen oinarrizko txartela ateratzeko ikastaroak antolatzen ditu.

Ikastaro hau herrian bertan emateko aukera proposatu digute. Eta horretarako, zenbat herritar interesaturik egongo liratekeen jakin behar dugu.

Ikastaroaren ezaugarriak hauek dira:

PRODUKTU FITOSANITARIOEN APLIKATZAILEA. OINARRIZKOA

- **Iraupena.**
25 ordu
- **Nori zuzendua:**
Nekazaritza-txartela dutenei edo produktu fitosanitarioekin lan egiten dutenei (lorezainak, fitosanitarioen saltzaileak, udaletxeetako brigadak,...). Bi kasu hauetan ez daudenek ezin dute gurekin ikastaroa egin. Badaude fitosanitarioen ikastaroak antolatzen dituzten enpresa batzuk.
- **Hizkuntza:**
Normalean gazteleraz
- **Helburua:**
Oinarrizko txartela lortzea eta produktu fitosanitarioek daukaten arriskuaz konturatzea.
- **Gainditzeko baldintzak**
Ikastaroa gainditzeko bi baldintza daude: %80ko asistentzia betetzea eta azterketa gainditzea. Parte hartzaileek bi argazki eta NAN-aren fotokopia ekarri behar dituzte
- **Matrikula**
36 €

Beraz, interesaturik bazaude, AZAROAREN 24RAKO izena eman Udaletxean.

Zerrenda jaso ondoren, ikastaroa emateko baldintzak betetzen diren ikusi eta horrela bada, egitaraua prestatu eta jakinaraziko dizuegu.

Abaltzisketan, 2017ko azaroaren 15ean.

Alkateak